



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 30a

20. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, A ereduan eta D ereduan Haur Hezkuntzako lehen mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten saioak gehitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, etxetresna elektrikoak konpontzeko jarduera ekonomikoari zergak jaisteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketari eta -esparruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Sarrigurren institutu bat eraikitzeko asmoa izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakitekoa suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten lehiatzaileak zergatik ari diren egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako zinemagintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, familientzako 2016ko politikei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzeritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen inbentarioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko prozedura judizialetan Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza juridikoa emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, aurkeztutako galdera, Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Mutiloan ikastetxe publikoa handitzeari edo berri bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Noaingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko espazio-beharrizanen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, A ereduan eta D ereduan Haur Hezkuntzako lehen mailatik  
Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza  
gisa euskara duten saioak gehitzeari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, A ereduan eta D ereduan Haur Hezkuntzako lehen mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara bitarte komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten saioak gehitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00338 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Departamentu honek ez du jasota A edo D ereduko ikastetxerik dagoenik non komunikazio-hizkuntza gisa euskara duten saioak gehitu diren, ez Haur Hezkuntzan ez eta Lehen Hezkuntzan ere. Salbuespen bakarra Zudairiko Las Améscoas HLHIPan gertatzen da, Hezkuntza Departamen-

tuak 2011-2015 legegintzaldian hartutako erabaki baten ondorioz.

Zudairiko Las Améscoas HLHIPan euskaraz bi saio gehiago ematen dira Lehen Hezkuntzako bigarren mailako taldean, eta talde horrek bakarrik jarraituko du plangintza horrekin Lehen Hezkuntza amaitzen duen arte.

Salbuespen hori gertatzen da Hezkuntza Departamentuak joan den legegintzaldian berariaz eman zuen baimenaren ondorioz, eta soilik mantentzen da konpromiso hori hartu zen taldeari jarraitutasuna eta koherentzia emateko; izan ere, talde horrek baldintza berezi batzuetan hasi zuen eskolaratzea, hain zuzen ere Departamentuak "A maila indartua" izenarenpean bildu zituen baldintza batzuekin.

Araudiari zorrotz erreparatuta, salbuespen hori gertatu ondorengo ikasmaitan, hau da, Zudairiko Las Améscoas HLHIPko Haur Hezkuntzako hiru mailatan eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan, D eredua irakasten da eta zorrotz betetzen da araudia.

Iruñean, 2016ko urriaren 28an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, etxetresna elektrikoak konpontzeko jarduera ekonomikoiei zergak jaisteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxetresna elektrikoak konpontzeko jarduera ekonomikoiei zergak jaisteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu (9-16/PES-00339). Galdera horiek 2016ko irailaren 29ko 3645 sarrera-zenbakiarekin erregistratu ziren. Hona Nafarroako Gobernuak Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galdegileak honako hau eskatu du, hitzez hitz:

“Etxetresna elektrikoak konpondu eta abarrerako jarduera ekonomikoiei zergak jaisteari dagokionez –Europako zenbait lurraldetan hori aurreikusten da–, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du hori dela-eta? Nafarroan beste horrenbeste egiteko zer aukera ikusten du?”

Lehenbizi, esan beharra dago galdera ez dela guztiz zehatza.

Alde batetik, “etxetresna elektrikoak konpondu eta abarrerako jarduera ekonomikoak” deitzen duenak ez du aplikazio-esparru zehatz edo argirik aipagai dituen etxetresna elektrikoaren motari edo jarduerari dagokienez.

Bestetik, komenigarria litzateke zehaztea “Europako zenbait lurraldetan aurreikusten den zerga jaitsieraren” aipamena. Hau da, zein zergari edo zein lurralderi buruz ari den. Alderdi hori funtsezkoa da, zeren eta, jakina den bezala, Nafarroako Foru Komunitateak oso eskumen desberdinak baitaizka zuzeneko eta zeharkako zergetan.

Definizio falta horretatik abiatuta, jo dugu galderak lortura izanen duela bai Aparatu elektriko

eta elektronikoaren hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuarekin, bai Aparatu elektriko eta elektronikoaren hondakinei (RAEE deitutakoak) buruzko 2012ko uztailaren 4ko 2012/19/UE zuzentarauarekin ere.

Aipatutako errege dekretuak helburu gisa ezartzen du birziklatzearekin eta aparatu elektriko eta elektronikoaren hondakinei (RAEE deitutakoak) balioa emateko beste modu batzuekin aurrera egiten jarraitzea, hondakin horiek daitekeen guztian gutxitzeko eta baliabideen erabilera efizientean laguntzeko, kontuan hartuta sektore hori bereziki garrantzitsua dela hondakin horiek izaten dituzten bigarren mailako lehengai baliadunak berreskuratzeko. Zehazten du, halaber, aparatu elektriko eta elektronikoak produktu oso konplexuak direla, oro har atal eta osagai ugari dituztenak: metalezko eta plastikozko era askotako osagaiak; plastikozko, zurezko edo metalezko karkasak; zirkuitu inprimatuaren txartelak; izpi katodikoaren hodiak; kristal likidozko pantailak; kableak; pilak; bateriak; osagai elektriko eta elektronikoak; era askotako fluidoak; hormigoizko kontrapisuak; inpresio kartutxoak; motor elektrikoak, eta abar. Atal eta osagai horiek era askotako eta jatorri desberdinetako materialekin fabrikatuta daude. Funtsean, metalak (burdinazkoak eta ez-burdinazkoak), polimeroak, beirak eta bestelako materialak (zura, kautxua, kartoia eta abar) izaten dira. Material horiek, batzuetan, balio handia ematen diete hondakin horiei, zeren eta horrelako materialak ateratzea kostu handikoa baita eta eskasak baitira. Hori dela eta, hondakinen sektore hori hiri-meataritzako modu bat dela jotzen da.

Bestetik, aipatutako zuzentarauak helburu du produkzio eta kontsumo jasangarriari laguntzea, lehentasuna ematen baitie aparatu elektriko eta elektronikoaren hondakinen sorreraren prebentzioari eta, gainera, haiek berrerabiltzera eta birziklatzera bideratzen baita. Halaber, lagundu nahi du aparatu elektriko eta elektronikoaren bizi-zikloan esku hartzen duten eragile guztien jokabidea hobetzen; esate baterako, ekoizle, banatzaile eta kontsumitzaileak, eta, bereziki, aparatu elektriko eta elektronikoaren bilketan eta tratamenduan zuzenean inplikaturik dauden eragileak.

Helburu horiek betetze aldera, Nafarroako Gobernuak aparatu elektriko eta elektronikoaren hondakinen sorreraren prebentzioa hobetzera bideratutako neurriak hartzearen lehen mailan egon nahi

du, bai eta haiek berrerabiltzearen eta birziklazioaren lehen mailan ere. Hala eta guztiz ere, ez dugu jakin Europako inongo lurraldetan zerga jaitzierarik eginen denik etxetresna elektrikoaren konponketarekin lotutako jarduera zehatz hauetan.

Neurri horien balorazioari dagokionez, esan beharra daukagu egoki zehaztu beharko litzatekeela zerga jaitziera eta, segur aski, aipatutako Europar Batasunaren zuzentarauaren eta errege dekretuaren xede eta helburuei lotu beharko litzatekeela, aparatu elektriko eta elektronikoen bizi-zikloan esku hartzen duten eragile guztien ingurumen-jokabideari dagokionez.

Horrek guztiak ez du eragozpena izan nahi parlamentari eskatzaileak beste idatzizko galdera batean zehatz dezan ukitutako jarduera ekonomikoaren, ukitutako zergen eta zerga jaitzierako neurriak aztertzen ari diren lurraldeen esparrua.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:  
Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketegi eta -esparruei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketegi eta -esparruei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakin nahi baitu, Nafarroa osoaren lurralde-antolamen-

duari eta -integrazioari dagokienez, zeintzuk diren Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko arlo ezberdinetako lankidetzajarduketak eta -esparruak, datozen hilabeteetarako aurreikusiak (9-16-/PES-00340). Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ez du parte hartzen lurralde-antolamendurekin eta -integrazioarekin lotutako inongo jarduketa edo proiektutan. Hala eta guztiz ere, GANen bitartez, bazkide gisa parte hartzen dugu Pirinioetako mendigunea edo/eta Akitaniako erregioa lurralde-jarduketarako eremu gisa duten zenbait proiektutan. Ondoren aipatzen ditugu proiektu horiek, horietako bakoitzean laguntzen duen Akitaniako bazkidea adierazita:

Proiektuaren izena	Xedea	Akitaniako bazkidea
iFORWOOD	Natur baliabideen aprobetxamendu jasagarria modu efiziente eta berritzailean egiteari buruzko jakintzaren transferentzia hobetzea eta praxi zuzenak partekatzea, Pirinioetako zur tekniko eskaera merkatuko eskakizunen arabera sustatuz.	Akitaniako Baso Jabetzaren Zentro Nazionala (Office National des Forêts Aquitania)
LINDUS II	Lindusko lepoan zeharreko hegaztien eztei ondoko migrazioa hobetzea eta haren zabalkundea sustatzea.	LPO Aquitania (Hegaztien Babeserako Liga)
ECOGYP	Hegazti harrapari nekrofagoek ematen dituzten zerbitzu ekologikoak eta haien menpeko habitatak identifikatu eta bermatzea eta haien balioa ematea.	LPO Aquitania (Hegaztien Babeserako Liga)
HABIOS	Pirinioetako hegaztien fauna eta haren habitatak. Mendiko hegaztien populazioei buruzko ezagutza hobetzea (galliformea, pizidoak, mozolo boreala).	LPO Aquitania (Hegaztien Babeserako Liga)
GREEN	Pirinioetako naturgune babestuetako ezagutzen eta jarduketan trukea. Pirinioetako bioaniztasuna kontserbatzeko betetzen duten paperari buruz sentsibilizatzea eta haren zabalkundea egitea.	Office National des Forêts Aquitania
H2Ogurea	Mugez gairik ibaietako uholde arriskuen, ur edangarriaren horniduraren eta kalitate fisiko-kimikoaren hobekuntzaren kudeaketa komuna hobetzea.	Agglomération Sud Pays Basque

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00341 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2016ko urriaren 20ko 725/2016 Ebazpenaren bitartez, derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleentzako 2016-2017 ikasturterako beka deialdi orokorra onetsi zen.

Aurreikusita dago heldu den astean argitaratzea deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Eskabideak deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dentik 2016ko azaroaren 30era bitarteko epean aurkeztu beharko dira.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen institutu bat eraikitzeko asmoa izateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen institutu bat eraikitzeko asmoa izateari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeak 9-16/PES-00342 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren INFORMAZIOA:

Galdegileak erantzun bat eskatu du Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzeko daukan aurreikuspenari buruz; hona esan beharrekoa:

- Hezkuntza Departamentuak 2017. eta 2018. urteetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat egi-tea aurreikusi du, 2018-2019 ikasturtean funtzionamenduan egon dadin.

- 2017. urterako aurreikusi den aurrekontua 859.447 eurokoa da.

- DBHko 6 lerro izanen dituen ikastetxe bat eraikitzea aurreikusi da. Ikastetxe hori aurrerago Batxilergoko lerroekin handituko da, DBHko matrikulak daukan bilakaeraren arabera.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak informazioa eskatu du (9-16/PES-00343) 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honetatik informazioa eman dezakegu Familiaren Zuzendariordetzari eszedentziatarako eskatutako laguntzei buruz, langileen laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko neurri osagarri gisa, langile horiek laneko eszedentzia bat hartu dutenean lehen graduako senideak, seme-alaba adingabeak eta helduak, zuzenean modu jarraitu eta iraunkorrean artatzeko, gaixotasunagatik edo/eta ustekabeko istri-

puarengatik. Zuzeneko laguntza ekonomiko bat da aldizka ordaintzen dena. 645,30 euroko zenbatekoa du, gehienez ere 12 hilabeterako, aurtengo abenduaren 31ko mugarekin. Laguntza hori eskuratzeko ebaluazio pertsonalizatuaren arubidea ezartzen da; horrek esan nahi du espedienteak izapidetu eta ebatziko direla eskabideak aurkezten diren hurrenkeran, eta horretarako kreditua dagoen bitartean. Deialdirako baliagarri dauden aurrekontu-baliabideak agortzen badira, eskabideak ezetsi egingen dira <sup>(1)</sup>.

Azaldutakoa kontuan hartuta:

(1) Zenbat langilek eskatu dituzte eszedentzia hartzeko laguntzak 2015ean?

2015ean, 218 langileen eskabide aurkeztu ziren.

(2) Zenbat pertsonak hartu dute eszedentzia bat?

Departamentu honetan ez daukagu informaziorik eszedentzia hartu duten pertsonen kopuruari buruz. Eszedentzia-egoeran egotea alde aurretiko baldintza bat da laguntza ekonomiko hori eskatzeko. Eman dezakegun datu bakarra da 2015ean zehar, eszedentzian zeuden 184 pertsonak, ebaluazio pertsonalizatua egin ondoren, arestian aipatutako prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izan dutela.

(3) 2014-2015 urteetako alderaketa, eskatutako eta onartutako eszedentziarena.

	Eszedentziarengatik eskatutako laguntzak	Eszedentziarengatik emandako laguntzak
2014	137	112
2015	218	184

(1) Ikus Eskubide Sozialetako kontseilariaren maiatzaren 4ko 227/2016 Foru Agindua



(4) Zer familia-egoera edo justifikazio azaldu dute eszedentzia eskatzeko? Hau da, zer familia-egoerak bultzatuta hartu den eszedentzia.

Beste behin aipatuko ditugu eszedentzian dauden pertsonentzako laguntza horiek arautzen dituen foru aginduan jasotako arrazoiak.

- Istripu larria izan duten seme-alaba adingabeak edo harrerapean edo tutoretzapean dauden adingabeak zaintzeko, ospitaleratuta dauden bitartean eta/edo handik atera ondoren haiek zuzenean, jarraian eta etengabe zaintzeko: 0 eskaera

- Eritasun larria edo istripu larria izan duten odol bidezko lehen graduak ahaide helduak zaintzeko, betiere ospitaleratuak baldin badaude eta eritasuna eta/edo istripua bitartean eta/edo ondoren zuzenean, jarraian eta etengabe zaindu beharra baldin badute: 27 eskaera

- Bigarren semea edo alaba, edo hurrengoak, jaiotzen denean eta jaioberrak edo familia-unitatean bizi diren seme-alabetako beste batek gutxienez % 33ko desgaitasuna edo mendekotasun moderatu edo larri bat duenean, edo mendekotasun handia, eta familia-unitateko kide den adinga-

beetako bat gutxienez, jaioberria ez dena, 9 urtetik beherakoa denean eta desgaitasuna edo mendekotasuna duenean, edo, bestela ere, 6 urtetik beherakoa denean: 3 eskaera.

- Seme-alaba adingabeak zaintzeko, hirugarren semea edo alaba, edo hurrengoak, jaiotzen denean, baldin eta familia-unitateko adingabeetako bi gutxienez 6 urtetik beherakoak badira, jaioberria(k) barne. Harrerapean edo tutoretzapean dauden familiako adingabeak seme-alabatzat hartuko dira: 127 eskaera.

- Aurreikuspenen arabera, urtebetetik gorakoak izanen diren adopzioetarako edo harreretarako: Eskaera bat.

- Haur bat baino gehiago erditu, adoptatu edo harreran hartzen direnean: 26 eskaera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, jakitekoa suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten lehiatzaileak zergatik ari diren egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten lehiatzaileak zergatik ari diren egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea 9-16/PES-00344 idatzizko galdera egin

du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Bat. Suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten azken lehiakideak ez direla egiten ari osasun-larrialdietako teknikari izateko erdi mailako heziketa zikloa. Osasun-larrialdietako teknikari titulua lortzeko proba libreen deialdi batean izena emanda daude.

Bi. Aurreko idatz-zatian informatu den bezala, azken oposizio-egileak ez dira egiten ari osasun-larrialdietako teknikari izateko erdi mailako heziketa zikloa.

Hiru. Osasun-larrialdietako teknikari izateko erdi mailako heziketa zikloa 2010/2011 ikasturtetik on line modalitatean eskaintzen da, eta gaur egun zikloa modalitate horretan eskaintzen jarraitzen da.

Osasun-larrialdietako teknikari titulua lortzeko proba libreterako deialdia egin izan da 2009tik 2014ra, biak barne. Proba horiek zuzendu zaizkie urte horietan lanbide gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko deitu diren prozeduretan gaitasun-unitateren bat egiaztatu duten pertsoneri; Hezkuntza Departamentuak, gainera, prestakuntza-laguntzaren bat eman zien pertsona horiei.

Gainera, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan, proba libre irekietarako deialdi irekiak egin dira, osasun-larrialdietako teknikariaren titulua lortzeko. Datozen egunetan, 2016-2017 ikasturterako deialdia argitaratuko da.

Lau. Ziklo honetarako Hezkuntza Departamentuak eskaintzen duen prestakuntza on line modalitatearen bidez gauzatzen da, betiere, honako bi hauen arteko orekari eusteko irizpideari eutsita: batetik, ziklo horretarako prestakuntza-eskaintza, prestakuntza-unibertso osoa jaso behar duena,

eta, bestetik, lan-merkatuaren balizko eskaera. Horrenbestez, azterketa hori urtero egiten da eta bere garaian hartuko da behar den erabakia, betiere Osasun Garraioaren Mahaian garatzen ari den lanaren emaitzak oso presente edukita.

Bost. Enplegua lortzeko aukeraren ikuspuntutik, kontuan hartu beharra dago ezen Osasun Garraiorako Profesionaltasun Ziurtagiriak aukera ematen duela, halaber, osasun garraioko jardura batzuk egiteko; horrenbestez, lanbide heziketako titulua sektore horretako enplegurako irtenbide bakarra izatearena zuhurtasunez hartu beharreko gaia da, eta betiere aipatu berri dugun Osasun Garraioaren Mahaiak ateratzen dituen ondorioen argitara.

Iruñean, 2016ko azaroaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Nafarroako zinemagintzari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako zinemagintzari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako zinemagintzari buruz (9-16/PES-00345). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Zure lehen galderari dagokionez, ondoren Navarra Film Commissionen ardueraren taula erakusten dugu:

TIPOLOGÍA	TOTAL PROYECTOS 2010-2011	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	PREVISIÓN 2017
LARGOMETRAJES FICCIÓN	42	7	8	5	2	8	5	7	6
LARGOMETRAJES DOCUMENTAL	81	8	12	16	20	10	10	5	3
CORTOMETRAJE	141	18	26	22	33	24	9	9	
SERIE TV	9	0	1	1	0	4	3	0	1
SPOT	76	13	13	12	15	12	8	3	
VIDEOCLIP	31	2	2	8	10	3	5	1	
PROGRAMA TV	29	9	6	2	9	1	2	0	
REPORTAJE FOTO-VIDEO	20	3	4	3	1	3	4	2	
VIDEO INSTITUCIONAL	9	1	3	3	2	0	0	0	

Bestalde, jarduera horren emaitza ekonomikoei dagokienez, momentuz ezin da inpaktu horren balorazio bat egin, inpaktu ekonomikoaren azterlana egiteko prozesu sistematizaturik ez delako egin. Hori funtsezko bi arrazoi hauengatik gertatzen da:

– Ekoizleak ez daude behartuta aurrekontuetako datuak partekatzen, salbu eta Nafarroako pizgarriari atxikitzen zaizkien kasuan, eta horiek, momentuz, gutxi izan dira. Oraindik ere goiz da ekoizle horien datuak baloratzeko. Funtsean, film luzei eta telesaili lortuta daude; kanpo gelditzen dira ikus-entzunezkoen beste formatu batzuei buruzko datuak.

– Horrelako azterlanen kostua.

Urrun ez dagoen etorkizun batean, espero da azterlan horri ekin ahal izatea, pizgarriak hartzen dituzten ekoizpenak maizago gertatzen direnean; halakoetan, lurraldean zuzenean egindako gastuaren azterlan sistematikoa aztertu ahal da, bai eta ekonomiarako duen arrastatze-eragina ere; halaber, Navarra Film Commissioni azterlana amaitu ahal izateko behar den aurrekontua eman ahal da.

Bestetik, “European Audiovisual Observatory”k egindako azterlan bat gehitu dugu, non ikus-entzunezkoen produkzioarako Europako pizgarri fiskalen sistemei buruzko analisi bat egiten baita. Nabarmentzekoak dira sortutako diru-bilketa eta emandako pizgarria direla-eta ematen diren bihurketa-faktoreak, erantsitako dokumentutik hurrengo taulara atera ditugunak:

Country	Scheme	Stated Impact
Belgium	Tax Shelter	EUR 1.21 in tax return for each EUR 1 sheltered
Croatia	Cash Rebate	HRK 1.26 in government earnings for each HRK 1 of incentive disbursed
Czech Republic	FISP	Between CZK 1.5 and CZK 1.625 of return to the state for each CZK 1 of FISP received by productions
France	Crédit d'impôt cinéma	EUR 4 in taxes and social revenues for each EUR 1 of incentive granted
France	TRIP	EUR 2.1 in taxes and social revenues for each EUR 1 of incentive granted
Hungary	Indirect Subsidy	HUF 1.25 in net tax benefit for each HUF 1 sheltered
Ireland	Section 481	EUR 0.51 in fiscal return for each EUR 1 in tax foregone <sup>37</sup>
Italy	Foreign Tax Credit	EUR 1.4 in VAT and income taxes for each EUR 1 in incentive granted
UK	Film Tax Credit	GBP 12 in GVA return for each GBP 1 of relief, generating GBP 498 million in tax returns

Bestalde, Spain Film Commissionek diru-bilketa eta pizgarri fiskala direla-eta ateratzen den bihurketa-tasari buruz egindako analisisetatik honako datu hauek atera ditzakegu: Pizgarri fiskaletan emandako euro bakoitzeko lurraldean zuzeneko gastuko bost euro sortzen dira; eta zuzeneko gastua, zeharkako gastua eta gastu induzitua batuta, berriz, 15 euro.

Gainera, pizgarri horrek kanpoko enpresak bultzatzen ditu Nafarroan ezartzera. Aipa daitekeen erakusgarri bat LA Panda Producciones-ena da. Los Ángelesen bizitzen hamarkada bat eman duten 11 bazkide espainiarrek osatutako enpresa da (horietako bat Elia Urquiza zinemagile nafarra da), eta enpresa horrek gure erkidegora etortzea

erabaki du. Erabaki horrek zuzeneko lotura du Nafarroan daukagun pizgarri fiskalarekin ez ezik, gure erkidegoan ekonomiaren etorkizuneko apustu gisa RIS3an “industria sortzaile eta kulturalak” linea sartzearekin ere, bai eta Navarra Film Commissionen eta SODENAREN arteko lan koordinatuekin ere, bi gai horiei dagokienez. Navarra Film Commissionek eta LA Panda Produccioneseko kideek irailaren 20an Donostiako Zinemaldian antolatutako aurkezpenean azaldu zen bezala, Nafarroako Gobernuak ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko egin duen apustu argia izan da erabakiaren arrazoia.

Ikuspegi ekonomikotik, eta ez soilik pizgarri fiskalari lotuta, agerikoa da Nafarroan garatutako

sorkuntza-jarduerak gure erkidegoko ikus-entzunezkoaren sektorean daukan eragina:

– Lana sortzen du sektore horretako tokiko enpresetan, eta enplegua sortzeko agertoki bat irekitzen du, bereziki gazteen enpleguan, hain zuzen ere lan merkatuan sartzeari dagokionez krisi-egoeran gauden une batean. Gainera, krisiak asko kaltetu duen eta aurrez existitzen den sektore baterako aukera bat da. Izan ere, sektore hori oso zatikatuta, murriztuta eta “iraute” egoera hutsean egon baita orain gutxi arte.

– Alboko eragin ekonomiko eta sozial positibok dauzka beste sektore batzuetan, zeren eta lurraldean egiten den zuzeneko gastuaren bolumenak zerbitzu ugarritan eragina duen indar handia gara baitezake: garraioa, ostalaritza, alokairuak, musika-sorkuntzaren sektorea...

– Erronka bat da gure erkidegorako, industria bereki baten sorrera dela eta: kulturaren industria.

– Aukera interesgarri bat da kanpora joan diren eta itzuli nahi duten talentu handiko profesionalentzat, horrek Know How delakoa dela-eta dakarrenekin.

– Departamentuen arteko lanerako arrazoi bat da, sinergiak eskatzen dituen: inbertsioa erakarri, politika ekonomikoa zein tributu arlokoa, turismoa, hezkuntza, lurraldearen garapena... eta horrekin

proiektu orokor bat, erkidego-proiektu bat sortzen da.

Nafarroan ikus-entzunezkoen industriaren hazkuntzaren aldekoa den testuinguru horrek bultzatzen du gure erkidegoa Ikus-entzunezkoen Klusterra abian jartzera, sektore indartsu baten eta enpresa-ehundura kohesionatuaren erakusgarri. Kluster hori gauza izanen da sortzen diren eskakizunei erantzuteko, Nafarroako enpresena ez ezik, gure lurraldean ezartzea edo pizgarri fiskalen babesean proiektuak garatzea erabakitzen dutenena ere. Beharizan hori, foru erkidegoko hainbat sektoretan eta beste erkidego batzuetako sektore honetan klusterrak sortzeak ekarri dituen esperientzia positiboekin eta enpresentzako eta sektorerako bererako onurekin batera, funtsezkoak izan dira proiektu honi ekiteko garaian.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## Galdera, familientzako 2016ko politikei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, familientzako 2016ko politikei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du familientzako 2016ko politikei buruz (9-16/PES-00346). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

1) *Zertara bideratu eta bideratzen dira 2016an aurrekontuan jasotako politikak?*

2) *Zehaztu al zenitzake haur txirotuentzako nahiz familientzako laguntzak direla-eta egindako jarduketak?*

#### 1.- Prestazio teknikoak:

Gaur egun, izaera prebentibo eta sustapenekoa duten hiru zerbitzu daude finkatzeko prozesuan. Ikuspegi unibertsal batetik Nafarroako familia guztiei zuzendutako proiektuak dira, haien modalitatea edozein dela ere.

#### 1.1.- Familia orientatzeko zerbitzua.

Familia Orientatzeko Zerbitzua izaera publiko eta espezializatua duen zerbitzu bat da, familia-eta ezkontza-bizikidetasunean zailtasun-egoeran dauden 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien arreta integrarean jarduten duena; honako hauek eskaintzen ditu:

1) aholkularitza eta prestakuntza familia-egituraren bizi-zikloaren lehenengo etapetan;

2) familiaren prestakuntza eta familietan eragina duten aldaketa sozialei egokitzea;

3) familia-sistemaren oinarritzko gaitasunak indartzea, bizi-ziklo bakoitzaren beharrezanegi egokitzeko;

4) familia- eta bikote-terapia: gatazken inguruko lanketa egin eta haiei konponbidea ematea; eta

5) prozesu terapeutikoa, zeinak bideratu nahi baitu familietako kideen artean gerta daitezela pertsona horien eta haien familia-sistemaren garapena eta bilakaera hobetzeko funtzionamenduan behar diren aldaketak edo konponbideak.

Gaur egun, urtean 2.230 saio egiten ari dira. Bidean den lizitazioan, 560 saio gehiago jaso ditugu; horrenbestez, azarorako urtean 2.790 saio izanen ditugu.

#### 1.2.- Familia-bitartekotzarako zerbitzua.

Familia-bitartekotza izaera publiko eta espezializatua duen zerbitzu bat da, familia-ingurunean gatazkak ebazten jarduten duena, bi aldeen arteko komunikazioa bideratzen duen prozesu boluntario eta konfidentzial batean, guztientzat asegarri diren akordio bideragarriak, banantzetik edo dibortziotik ateratzen den familia-taldearen beharrezan artatzea bermatzen dutenak, lortzeko.

Gaur egun, urtean 974 saio egiten ari dira. Bidean den lizitazioan, 126 saio gehiago jaso ditugu; horrenbestez, abendurako urtean 1.100 saio izanen ditugu.

#### 1.3.- Familia-topagune zerbitzua.

Erantzukizun publikoko zerbitzu espezializatu bat da, adingabeek aitarekin edo amarekin edo familiako kide batekin daukaten harremana etenda edo garapen zaileko egoeran dagoen kasuetan esku hartzekoa. Esku-hartzea aldi baterakoa da, eta profesionalak garatzen dute toki neutral batean. Haren xede nagusia da gatazka-egoera normalizatzea, nolahi ere agintaritza judicial edo administratibo eskudunak ezartzen dituen jarraibideei jarraituz eta adingabeen eta gatazkan dagoen familiako kideen interesa eta segurtasuna (fisikoa, psikikoa eta morala) bermatuz.

Gaur egun, familia elkartzeko hiru gunetan giza baliabideen zuzkidura handitu da, eta arretagaitasuna % 20 handitu da. Urtean 200 kasu artatzetik 250 kasu artatzera pasa da.

1.4.- Guraso izate positiboa ezartzeko programa pilotua.

Familien hezkuntza-eredua hobetzera zuzendutako programak dira, bai eta babes-neurriren bat duten seme-alaben gurasoen guraso izatea berreskuratzea ere. Programa pilotu bat izaten ari da, honako hauen inplikazioarekin aurrera erama-

ten ari dena: familia bulegoko profesionalak; orientazioko, bitartekotzako eta familiak elkartzeko guneko prebentzio-programen enpresa esleipen hartzaileak, eta erkidegoko sare sozialeko beste batzuk.

## 2.- Prestazio ekonomikoak.

2016ko maiatzean, familientzako prestazio ekonomikoen hiru modalitate onetsi ziren, urte anitzeko izaerarekin (2016-2020).

2.1.-Seme-alaba adingabeak izanik, bizitza pertsonaleko, laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko laguntza ekonomikoak emateko deialdia, adingabeak heldu bakar baten kargura eta ardurapean dauden kasuetarako.

Behin bakarrik eta izaera subsidiarioarekin jasotzen diren laguntza ekonomikoen multzo bat da. Banakako ebaluazioaren prozeduraren bitartez izapidetzen dira. Laguntzak emateko sistema hori ezinbestekotzat jotzen da laguntza ematea diru-laguntzaren xede den jarduera edo egitatea egitearen menpe dagoen egoeratarako; horixe da guraso bakarreko familia izatearena.

Hori dela eta, ez du ematen bidezkoa denik lehiaren sistema erabiltzea, eskatzaileei puntuazio handiagoa edo txikiagoa ematen dieten balorazio-irizpideak ezarritik. Aitzitik, jotzen da kasu horietan bidezkoa dena dela eskaerak ebaluatzea eta ebaluazio horretatik ateratzen den diru-laguntza ematea, eta haiek izapidetzea eta espedienteak ebaztea aurkeztzen diren neurrian eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoen neurrian; izan ere, laguntza jasotzea determinatzen duen egitatea familia gurasobakarra izatearena da.

2016. urterako 200.000 euroko kontu-sail bat ezarri da; hartatik, gaur egun, kontu-sail guztia erabili da.

## 2.2.- Familia ugariarentzako laguntzen deialdia.

Laguntzen multzo hau pentsatuta dago familia-unitatearen baitan gertatzen diren eta beharrezkoak diren aparteko gastuak estaltzeko; halakotzat hartzen dira entzumenerako protesiak, preskripzio optikoak (betaurrekoak edo ukipen-lenteak, arrazoi estetikoengatik erabiltzen ez direnak), ortodontzia eta ortopedia. 2016. urterako 200.000 euroko kontu-sail bat ezarri da; hartatik, gaur egun, kontu-sail guztia erabili da.

2.3.-Eszedentziarengatik aldizkako ordainketarako laguntza ekonomikoen deialdia.

Seme-alaba adingabeak edota gaixotasunagatik edo istripuagatik arreta zuzena, jarraitua eta etengabea behar duten adineko lehen graduko familiartekoak zaintzeko pentsatutako laguntzak dira.

2016. urterako 450.000 euroko kontu-sail bat ezarri da; hartatik, gaur egun, kontu-sail guztia erabili da.

2.4.- Beren kargura seme-alabak dituzten familien babes soziala hobetzea.

Joan den ostegunean, azaroaren 3an, Gizarteratzerako eta Errenta Bermaturako Eskubi-deak arautzen dituen Foru Legea onetsi zen.

Legearen helburu nagusia babes soziala hobetzea da, eskubideetan oinarritutako ikuspegi batek; horretarako bermatzen ditu bai gizarteratzerako eskubidea, beste neurri batzuen artean enplegurako pizgarriak emanez, bai ahultasun egoeran dauden pertsonen pobrezia larriaren kontra egiteko behar den prestazio ekonomikorako sarbidea, azpimarra berezia jarriz haurren eta adineko pertsonen pobrezian.

Legeak familiek jasoko dituzten zenbateko ekonomikoetarako eskala berria jasotzen du, halako moduz non lehentasuna ematen baitzaio haur pobreziaaren aurkako borrokari beren kargura seme-alabak dituzten familia-unitateetan; bestetik, ekitatea hobetzen da, jaso beharreko per capita errentari dagokionez.

2015ean, 12.875 familia-unitatek jaso dute gizarteratze errenta, eta horrekin 28.839 pertsonari eman zaie estaldura; horietatik, 10.820 adingabeak ziren (artatutako pertsonen % 38 adingabeak dira).

2015ean artatutako familia-unitate guztietatik, 2408k ama dute bakarrik, eta 3891 adingabe dituzte ardurapean, eta 296k aita dute bakarrik, ardurapean 462 adingabe dituztela (guztira, gisa horretako 2704 etxe daude, ardurapean 4353 adingabe dituztenak). 2015ean gizarteratze errentak babestutako adingabeen % 40 bakarrik ama edo bakarrik aita duten etxeetan bizi dira.

3) Zein da familia-politiketan esleitutako aurrekontua, eta zein betetakoa?

Izena	Hasierako kreditua	Bateratua
Familiari laguntzeko zerbitzuak: familia-orientazioa eta -bitartekotza	274.211	224.211
Familia elkartzeko gunea	421.751	371.806
Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak	650.000	650.000
Familia ugarietako laguntzak	200.000	200.000
Familia adoptatzaile eta familia hartzaileentzako baliabideak	150.000	150.000
Adingabeentzako laguntzak	15.725.077	15.184.956
Adingabeentzako eguneko zentroa	262.051	262.051
Adopzioaren aurretiko prestakuntza	14.137	14.137
Zailtasun edo gatazka egoeran dauden adingabeen autonomiarako baliabideak	130.000	130.000
Familiarentzako prestazio ekonomikoak	1.120.000	1.080.000
Haurrak propioak ez diren etxeetan hartzeko kuotak	90.000	130.000

4) Eskubide Sozialetako Departamentua zer jarduketara-*plan ari da egiten haurrak bizi diren ingurunea hobetzeko familia-politiketan?*

Sozietate konplexuen egungo testuinguruan, haurrentzako eta nerabeentzako arriskuak piltzen ari dira (horietatik asko gorabidean daude, haurren pobrezia bezala). Adingabeek haurtzarotik helduarora iragateko garaian dauzkaten bizi-aukerak ez daude jada soilik klase sozialari edo/eta estatusari lotutako adierazleen menpe.

Arriskuaren gizartea deitutakoak patroialdaketak ekarri ditu pertsonen arteko harremanetan, familien tipologian eta egiturari, ezkontideen eze-gonkortasunaren gorakadan eta ezkontzaren deserakundetzean, bai eta sozietate konplexuen osaera etnikoan ere. Horrek guztiak berarekin dakar familia-agertoki berriak sortzen ari izatea, non gurasoen figurak gero eta sartuago baitaude guraso-betebeharrak nahitaez betetzeko behararen eta merkatuaren eskakizun gero eta eskakizun handiagokoen artean. Hartara, familiaren tipologian eta egiturari gertatutako aldaketek azkenean arrisku-faktore eta -adierazle berriak sortzen dituzte guraso izate positiboa betetzeko, bai eta haurren eta nerabeen oinarritzko beharrezan betetzeko ere.

Haurren eta nerabeen babesak, edozein aldetatik begiratuta, gaur egun neska-mutilen eta nerabeen eskubide bat da, bai eta gizarteak bere osotasunean duen betebeharrak ere. Hau da, "erantzukizun partekatuen" printzipiotik ezarrita-

ko sistema bat da: familia, gizarte zibila eta gizarte babeserako sistemak.

Aurrekotik guztitik ondorioztatzen da familia babesteko politiketarako hurbilketa berri bat egin beharra dagoela, bai eta haurrak babesteko sistemara bertara ere. Hurbilketa berri horren ardatz zentrala familiari laguntzeko politikak dira, lehengo eragile babeslea den aldetik, betiere "gai soziala" deitu ohi dena bistatik galdu gabe, haurren pobrezia eta desberdintasun sozialaren genesiaren azpian dagoen elementua baita. Biak ere haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoeren aurrekariak dira.

Horrek guztiak berarekin dakar familiaren, haurren eta nerabeen babesa lantzea modu integral eta integratuan, hau da, behar guztien oinarritzko estaldura bermatuz (familiakoak, pertsonalak, sanitarioak, sozialak, emozionalak...) eta izaera sektorialeko helburuak gaindituz, ia modu esklusiboan sistemaren babes-dimentsioari lotuta daudenak, ikuspegi zabalago bat hartzeko, zeinak erreferentzia gisa izanen baititu neska-mutilen eta nerabeen eskubideak, dela zuzenean, dela haien familiarentzako babesaren bitartez.

Halaber, abiapuntutzat hartzen dugu ezen soilik sektore arteko perspektiba batetik eta, horrenbestez, babes sozialeko sistemetatik elkarreragitan jokatzeko duten ahaleginen baturatik, bai eta erkidegoko sare sozialaren lokarri desberdinetatik ere, izanen dela posible egiazki lan egitea haurren eskubideen berme handiagoa eta eraginkorragoa

lortzeko. Hau da, honako hauek egin behar dira: beren kargura seme-alabak dituzten familiak laguntzeko beharra aitortu; gurasoak lan merkatuan sar daitezzen sustatu; lana eta familia bateragarri egiteko neurriak hartu; diru-sarrerara urriak dituzten familiak babestu; kalitatezko zerbitzuetarako sarbidea erraztu (sanitarioak, hezkuntzakoak, etxebizitzakoak eta aldeko inguruneak), eta neska-mutilek eta nerabeek beraiengan eragina duten politiketan parte har dezaten sustatu.

2016. urtean zehar, zenbait jarduketa egin dira zerbitzuen eta prestazioen arloko familia politikak finkatzeko; eta bestelako neurriak ere hartu dira babesgabetasun-testuinguruetan dauden neska-mutilak eta nerabeak babesteko.

- Zerbitzu eta prestazio tekniko eta ekonomikoak finkatzea legegintzaldi osorako, urte anitzeko izapidetzearen bitartez.

- Familia-harrera areagotzea, egoitza-harreraren ordezkotzako aukera gisa; horri dagokionez, familia-harrera espezializatuaren eredia izapidetzen ari da. Eredu horretan, harrera-egileetako bati exijitzen zaio erabat eta modu profesionalean inplikada dadila. Esku-hartze sozialaren esparruarekin lotutako titulazio bat exijitzen zaio (psikologoa, gizarte langilea edo/eta gizarte hezitzailea). Eredu horren helburua da irtenbide bat eman ahal izatea premia bereziak (arreta terapeutiko trinkoaren beharra; anai-arreben taldeak, 6 urtetik gorako adingabeak, harreraren aurkakoak diren eta aurkakotasunean dauden familia biologikoetatik datozen adingabeak, jokabide arazo larriak dituzten adingabeak...) dituzten nerabeen harrera-beharrei.

- Adopzio prozesuen porrota saihesten duten prebentzio-neurriak indartzea. Kasu horretan, hezkuntza-laguntza eta adopzioaren ondorengo laguntza terapeutikoa indartzen ari dira. Kontua da guraso-figurei laguntza eta aholkua emateko bali-

bide bat izatea, gerta daitezkeen arazoan aurrean, eta, halaber, laguntza terapeutikoa ematea adopzioaren aurreko etapetik adingabeak izan dezakeen eta nerabearora iragatean agerian jartzen den kalteari konponbidea emateko.

- Egoitza-harrerako neurrien aurreko eta ondoko etapetan babes-programa prebentiboak garatu eta areagotzea. Horri dagokionez, familia-inguruetik ateratzea saihesten duten familia-zaintzako programak indartzen ari gara (HNAT-Haurren eta nerabeen arretarako taldeak, familian esku hartzeko programa espezializatua eta nerabeen hezkuntza programa). Halaber, gurasoak berreskuratzeko programak indartzen ari dira, egoitza-harrerako prozesuetan dauden adingabeak dituzten familientzat.

- Era berean, familiari laguntza emateko politiken garapenaren helburu nagusi gisa, eta azaldu-takoarekin bat, aurreikusita dago Familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integrala idazten bukatu eta garatzea. Plan horren arretagune nagusia zuzenduko da izaera prebentibo eta sustapenekoak duten programak eta jarduketak garatzera. Testuinguru horretan, premia bereziak dituzten familiei departamentuen arteko perspektiba batetik arreta emateak (bereziki, familia gurason bakarrei) enbor-izaera izanen du, zeren eta gero eta beharrezkoagoa baita haurren ahuldadeko, babesgabetasuneko edo/eta pobrezia egoerei —bai eta horretatik guztitik eratortzen den desberdintasunaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioari ere— modu integralean ekiteko gauza diren jarduketa-ildo estrategikoak ezartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro



## **Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzerritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzerritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Nuria Mónica Domenech Linde foru parlamentariak galdera bat egin du (9-16/PES-00347) Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzerritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2016ko urriaren 26ko idazkiaren bitartez, parlamentariak honako informazio hau eskatu du:

– *Zein da Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko jarduketa-protokoloa, atzerritartasun-txostenak egiteari buruz?*

– *Familia berriro batzeko, gizarte-sustraitzeari buruzko eta egoitza-baimena berritzeko zenbat eskabide jaso dira 2015eko abuztutik?*

– *Familia berriro batzearekin, gizarte-sustraitzearekin eta egoitza-baimena berritzearekin zerkusia duten zenbat txosten eman dira 2015eko abuztutik?*

– *Familia berriro batzea eskatzea dela-eta, etxebizitzaren egokitasunari buruzko zenbat ziurtagiri eman dira 2015eko abuztutik?*

– *Integrazio-graduari buruzko zenbat ziurtagiri tramitatu dira 2015eko abuztutik, gizarte-sustraitzera iristeko, aldi baterako egoitza-baimena berritzeko eta familia berriro batzeko baimena berritzeko?*

Eskatutako informazioari dagokionez, honako hau esan behar dugu:

(1) 2011ko maiatzaren 31n, Laneko eta Immi-grazioko Ministeriotik idatzizko informazioa igorri zitzaion orduko Immigranteari Laguntzeko Bulegoaren zuzendaritzari.

“Atzerritarren Legean ezarritakoari jarraituz, erregelamendu horrek aurreikusten du autonomia erkidegoek honako gai hauei buruzko txostenak egitea:

– Bizileku-baimena edo bizileku- eta lan-baimena berritu nahi duen atzerritarrak egindako integrazio ahalegina (51.6, 61.7, 71.6 eta 109.6 artikulua).

– Atzerritarrak familia batzeko baliatu nahi duen etxebizitzaren egokitasuna eta, kasua bada, baimena berritzeko asmoa (55 eta 61.3 artikulua).

– Bizileku-baimena aparteko inguruabarren ondoriozko gizarte-loturarengatik eskatzen duen atzerritarraren lotura (124.2.c artikulua).”

Hala eta guztiz ere, aipatzen da ezen, orduan onetsitako erregelamendu baten arabera, “etxebizitzaren egokitasunari eta loturari buruzko txostenen kasuan, Erregelamenduak aurreikusten duela horiek tokiko udalbatzek egin ahal izatea, autonomia erkidego eskudunak hala ezarri duenean, betiere hori aldeztatik Estatuko Immigratio eta Emigratio Idazkaritzari ezagutzera eman zaiotenean”.

(2) Eskubide Sozialetako Departamentuan jasota ageri den bezala, 2011ko ekainaren 28an orduko Immigratio Bulegoko Zuzendaritzak idatzizko posta bat igorri zion Estatuko Immigratio eta Emigratio Idazkaritzari, 2011ko maiatzaren 31n jasotako eskutitzari erantzunez, non honako hau ematen baita ezagutzera Nafarroako kasuan:

• “Etxebizitza familia batzeko egokia izateari buruzko eta, kasua bada, baimena berritzeko” txostenak eta “aparteko inguruabarren ondoriozko gizarte loturari buruzkoak” toki entitateek egiten dituzte aurrerantzean ere, gaur arte bezala.

• “Bizileku-baimena edo bizileku- eta lan-baimena berritu nahi duen atzerritarrak egindako

integrazio ahaleginari” buruzko txostenak autonomia erkidegoak eginen ditu”

(3) 2011n erabakitako prozeduratik ondoriozta daitekeen bezala, Eskubide Sozialetako Departamentuak soilik bizileku-baimena edo bizileku- eta lan-baimena berri nahi duen atzerritarrak egindako integrazio ahaleginari buruzko txostenak egingen ditu.

Horri dagokionez, bizileku-baimena edo bizileku- eta lan-baimena berritzeko integrazio ahalegi-

nari buruzko 78 txosten izapidetu dira 2015eko abuztutik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen inbentarioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin 1. izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako ondasunen inbentarioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du Eliza Katolikoak egindako immatrikulazioek ukitutako ondasun

guztien inbentarioari buruz (9-16/PES-00348). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gobernua modurik egokiena bilatzen ari da 2016ko apirilaren 7ko Ebazpenak premiatutakoa betetzeko, inplikaturako sektore guztiak kontuan hartuta. Gobernuak ahaleginak eginen ditu ebazpen hori ahal den epe laburrenean betetzeko, administrazio gehiago eta entitate desberdinak inplikatuzko beharra kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 16an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko prozedura judizialean Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza juridikoa emateari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak erreklamatzeko prozedura judizialean Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza juridikoa emateari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko zenbait galdera egin ditu (9-15/PES-000349). Honako hau da Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

• *Pertsonatu al da Nafarroako Gobernuak Eliza Katolikoak immatrikulatutako toki entitateen jabetzako ondasun higiezinak berreskuratzea xede duen prozedura judizialen batean?*

Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuan dauden datuen arabera, Nafarroako Gobernuak ez da pertsonatu Eliza Katolikoak immatrikulatutako toki entitateen jabetzako ondasun higiezinak berreskuratzea xede duen inongo prozedura judizialean.

Galdera:

• *Toki entitateek Nafarroako Gobernuari zenbat aldiz eskatu diote informazioa Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunaren jatorriari eta eskubideei buruz?*

Toki entitateek Nafarroako Gobernuari gai horri buruzko informazioa emateko egindako errekerimenduei dagokienez,

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuko Toki Antolamendurako eta Toki Entitateei Laguntzeko Zerbitzuak

emandako dokumentazioaren arabera, hiru informazio-errekerimendu daude:

1. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkuraren 2013ko apirilaren 26ko Erabakia, honako hauek aipatzen dituen, besteak beste:

“Lehena. Nafarroako Gobernuari eskatzea Nafarroako herriei informazio juridiko eta historikoa eman diezaiela beren ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruz, eta laguntza eman diezaiela Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratzea nahi dituzten udal eta kontzejuei.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari informazioa eskatzea diru publikoarekin Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondarea konpondu, hobetu eta mantentzeko egin dituen inbertsio guztiei buruz, zehaztuz zenbateko portzentajea egiten duten guztizko kostuan Nafarroako Gobernuak, Estatuak eta toki enteek egindako ekarpen publikoek.

Hirugarrena. [...]”

2. Aiegiko Udalaren Osoko Bilkuraren Erabakia, 2013ko martxoaren 25ekoa, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Ondarearen aldeko Plataformaren erabaki proposamena, Iratxe Hautagaitzerrenda Independentek bere egindakoa. Honako hau da, hitzez hitz:

“Lehena. Nafarroako Gobernuak Nafarroako herriei informazio juridiko eta historikoa eman diezaiela beren ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruz, eta laguntza eman diezaiela Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratzea nahi dituzten udal eta kontzejuei.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak informazioa dezala diru publikoarekin Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondarea konpondu, hobetu eta mantentzeko egin dituen inbertsio guztiei buruz, zehaztuz zenbateko portzentajea egiten duten guztizko kostuan Nafarroako Gobernuak, Estatuak eta toki enteek egindako ekarpen publikoek. Nafarroak eskubidea dute jakiteko zein puntutaraino finantzatzen eta mantentzen jarraitzen duten, ia osorik, Elizak pribatizatutako ondasunak.

Hirugarrena. [...]”

3. Miranda Argako Udalaren Osoko Bilkuraren Erabakia, 2013ko apirilaren 26koa. Horren bidez, Agoizko Udalak eskatuta —Berriozar, Leotz, Lerga, Zangoza, Araitz, Baztan, Altsasu, Arroitz, Aranguren, Otsagabia, Atarrabia, Leitza, Etxaleku, Irurtzun eta Lodosako udalekin batera Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformako kidea den aldetik—, honako hau erabaki du aho batez:

“Lehena. Nafarroako Gobernuak Nafarroako herriei informazio juridiko eta historikoa eman diezaiela beren ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruz, eta laguntza eman diezaiela Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratu nahi dituzten udal eta konzejuei.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak informa dezala diru publikoarekin Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondarea konpondu, hobetu eta mantentzeko egin dituen inbertsio guztiei buruz, zehaztuz zenbateko portzentajea egiten duten guztizko kostuan Nafarroako Gobernuak, Estatuak eta toki enteek egindako ekarpen publikoek. Nafarrek eskubidea dute jakiteko zein puntutaraino finantzatzen eta mantentzen

jarraitzen duten, ia osorik, Elizak pribatizatutako ondasunak.

Hirugarrena. Erabaki hauen berri ematea Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformari eta Nafarroako Gobernuari.”

Galdera:

• *Toki entitateek zenbat aldiz eskatu dute laguntza Eliza Katolikoaren aurkako prozedura judizial bat abiarazteko, jabetza toki entitateek erreibindikatzeko eta Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak direla-eta?*

Ez dago jasota toki entitateek zenbat aldiz eskatu duten laguntza Eliza Katolikoaren aurkako prozedura judizial bat abiarazteko, jabetza toki entitateek erreibindikatzeko eta Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak direla-eta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M<sup>a</sup> José Beaumont Aristu

## **Galdera, titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko inbertsioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko inbertsioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du titulartasun publikoko beste ondasun batzuen aldean lehentasuna izan lezaketen titulartasun pribatuko

inbertsioei buruz (9-16/PES-00350). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Alde batetik, ezagutzera eman ahal dizut 2016ko ekitaldirako honako jarduketa hauetan lan egiten ari garela:

– Fiteroko antzinako monasterioko klaustroa. Esku-hartzearen zortzigarren eta azken fasea. Titularra: Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutza. 2008an hasitako proiektua da. Ondasun horri dagokion informazioa uztailaren 18ko PES-00263 erantzunean eman genuen.

– Iruñeko katedraleko klaustroa. Titularra: Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutza. 2016an sinatutako hitzarmena. CAN eta CAIXA banku-fundazioen (% 56) eta Artzapezpikuntzaren (% 11) babesarekin finantzatutako obra.

– Erriberriko Santa Maria Elizako ataria. Esku-hartzearen azken fasea. Titularra: Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutza. Gondra-Barandiaran

Fundazioaren babesarekin (% 50) finantzatutako obra.

2017. ekitaldirako, aurreikusita dago inbertsioak honako toki hauetan egitea:

– Iruñeko katedraleko klaustroa. 2. fasea. Nafarroako Gobernuaren ekarpena: 391.800 €.

– Tuterako Katedraleko Judizioaren Atea. Titularra: Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutza. Aurreikusita dago honako hauen ekarpenekin finantzatzea: Tuterako Udalak (% 33), Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutza (kopurua zehazteko dago) eta babesle pribatuak (zenbatekoa zehazteko dago). Nafarroako Gobernuak zenbateko ekarpena egitea aurreikusi den: 200.000 euro (behin betiko zenbatekoa eta obren hasiera oraindik ere zehazteko daude. Guztira exekutatzekoa den balizko kopurua, seguruen bi ekitaldi ekonomikotan gauzatuko dena).

Azkenik, titulartasun pribatuko ondasunetan egindako inbertsio horien justifikazioari eta hura Nafarroako Parlamentuari igortzeari dagokionez, nabarmendu behar dugu ezen 2017ko inbertsioetarako lehendik Parlamentuak onetsitako zen-

bait ebazpen badaudela: Iruñeko Katedraleko Klaustroaren kasuan, 2013ko otsailaren 26an, eta Tuterako Katedraleko Judizioaren Atearen kasuan, 2016ko azaroaren 3an.

Baldin eta beharrarengatik edo inguruabarrengatik ikusten bada titulartasun pribatuko beste ondasun batzuetan inbertitu beharra dagoela, Parlamentuaren 2016ko ekainaren 2ko galderan aipatutako ebazpenaren gomendioei jarraituko zaie: Azterlan tekniko eta ekonomiko zorrotz bat prestatuko da, inbertsio hori ondare publikoko beste inbertsio batzuen aldean lehenestea justifikatuko duena, eta Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordean aurkeztuko da, aipatu inbertsiorako arrazoiak azaltzeko eta parlamentu-taldeen jarrera ezagutzeko.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

## **Galdera, aurkeztutako galdera, Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin beharreko ekarpenari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aurkeztutako galdera, Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu (9-16/PES-00351). Galdera horiek 2016ko urriaren 10eko 3781 sarreraz-zenbakiarekin erregistratu ziren. Hona Nafarroako

Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Jakina den bezala, une hauetan Estatuarekin negoziatzen ari da 2015eko urtearen ekarpenaren zehaztapena. Horixe da Nafarroak 2016an ordaindu beharreko behin-behineko ekarpena finkatzeko oinarria. Nafarroako Zerga Ogasunak egindako azterlan teknikoek tarte bat finkatzen dute oinarri-urtearen ekarpenari dagokionez, 341 eta 495 milioi euro artekoa. Horrenbestez, jotzen da 2016ko behin-behineko ekarpena, Hitzarmen Ekonomikoaren 60. artikuluan ezarritako gaurkotze-indizea aplikatuta, aipatutako zenbatekoetatik behera egonen litzatekeela. Gainera, aipatu beharra dago Nafarroako Gobernuak inolaz ere ez duela onetsi 2016rako 613,7 milioi euroko ekarpenik, eta une honetara arte egindako hiruhileko ordainketak bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera likidatu direla. Ordainketa horiek urtearen azken hiruhilekoan erregularizatu-ko dira, behin egungo bosturtekorako erabakiak

iritsita. Hori dela eta, ez dugu uste une hauetan aipatutako desfasea dagoenik. Horrenbestez, ez du zentzurik esatea arrazoi hori dela-eta kontusailak blokeatu edo haietan murrizketak egitera jo behar denik, galderaren bigarren atalean aurrez uste izatekoa den bezala.

Aurreko galderaren erantzunean aipatu den bezala, 2016. urterako behin-behineko ekarpena eta, horrenbestez, laugarren hiruhilekoan egin beharreko ordainketa, 2015eko oinarri-urtearen ekarpena gaurkotzearen bidez zehaztuko da. Une hauetan, Estatuko ordezkariekin negoziatzeko fasean gaude. Horrenbestez, ez dago ordainketa horri buruzko aurreikuspen finkorik. Halaber, jada ordainduta dagoen 2015eko ekarpenari buruz adostu beharrekoa den behin betiko likidazioaren arabera izanen da.

Horri dagokionez, ez dago bi administrazioetako ordezkariak landu beharreko inongo gairik, zeren eta jada aipatu dugun bezala, ordainketak Hitzarmen Ekonomikoaren bigarren xedapen iragankorra zorrotz betez egin baitira. Alderdi hori, bestaldetik, Nafarroak aurrekontuei eta ogasun publikoari buruz dauzkan eskumen osoen esparrukoa da eta, horrenbestez, ez legoke Estatuarekin formalki landu beharreko inongo gairik.

Galdera okerra da, zeren eta, parlamentu-talde horri POR-159 ekimenari emandako erantzunean informatu zitzaion bezala, apirilaren 19an ez baitzen bilera itxirik izan.

Ordaindutako kopuruak Hitzarmen Ekonomikoa zorrotz betez ordaindu dira, aipatu dugun bezala, eta kontseilariak sinatutako foru aginduak Hitzarmen Ekonomikoaren eta Finantza Plangintzaren Zerbitzuak egindako txosten teknikoetan jasotako proposamenaren arabera egin dira, Nafarroako Zerga Ogasunaren zuzendari kudeatzaileak eta Kontu-hartzailetza Delegatuak ontzat eman ondoren.

Nolanahi ere den, desadostasun bat gerta liteke Nafarroaren eta Estatuaren artean, baldin eta abenduaren 31 baino lehen adostasun batera iristen ez bada Hitzarmen Ekonomikoko harreman finantzarioen zehaztapenean, Nafarroak urtearen hasieratik erreklamatu izan duen bezala, zeren eta bi urte iragan baitira aurreko bosturtekoko akordio behin-behineko luzapenetik, eta akordio horiek, egindako azterlanetan adierazi eta oinarritu den bezala, Foru Komunitatea kaltetzen ari baitira.

Iruñean, 2016ko azaroaren 10ean

Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, Mutiloan ikastetxe publikoa handitzeari edo berri bat eraikitzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mutiloan ikastetxe publikoa handitzeari edo berri bat eraikitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak (UPN) 9-16/PES-00352 zenbakiko ida-

tzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusita dauka Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoa handitzeko beste eraikin bat egitea herri horretako udal barrutian. Aurreikusi da proiektua 2017an lizitatzea eta obra 2017an eta 2018an egitea. Proiekturako eta obrarako lizitazio-kopuruak 130.580,41 eta 3.600.286,70 eurokoak dira, gutxi gorabehera.

Iruñean, 2016ko azaroaren 8an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Noingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko espazio-beharrizanen aurreikuspenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Noingo Bigarren Hezkuntzako Institutuko espazio-beharrizanen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-16/PES-00353 zenbakiko idatzizko gal-

dera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentua aukera guztiak aztertzen ari da Noingo Bigarren Hezkuntzako Institutuaren espazio-arazoei konponbidea emateko. Ez dira zehaztu ez epeak ez diru-zenbatekoak, baina behar diren baliabide guztiak erreserbatuko dira aipatutako ikastetxeari atxikitako ikasle guztien eskolaratzea bermatzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 8an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak parlamentu-galdera bat egin du (9-16/PES-00355), mendekotasunaren balorazioa egiteko 2011tik 2015era bitarteko eskatzaileei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

(1) 2011-2015 aldian beren mendekotasunaren balorazioa egiteko eskatu dutenen kopurua.

Urtea	Aurkeztutako eskabideen kopurua	Balorazioen kopurua
2011	6.070	5.337
2012	4.984	3.999
2013	4.677	4.701
2014	4.979	4.022
2015	5.754	4.804

(2) Baloratutako pertsonen kopurua, mendekotasun graduaren arabera (2011-2015 aldia)

	Baloratuak					
	Mendekotasun graduaren arabera				Berrikuspenak (*)	GUZTIRA
	Mendekoak ez direnak	Mendekotasun moderatua	Mendekotasun larria	Mendekotasun handia		
<b>2011</b>	821	2165	1503	848	994	5337
<b>2012</b>	558	1338	1188	915	821	3999
<b>2013</b>	534	1.279	1638	1250	595	4701
<b>2014</b>	400	1.113	1.464	1.045	457	4.022
<b>2015</b>	637	1521	1593	1053	214	4804

\*Guztizkoan sartutako berrikuspen kopurua

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro